

ERABAKIA, 2016ko ekainaren 17koa Euskal Herriko Unibertsitateko Gerentearena, Horren bidez, KOORDINAZIOAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZA Ikastetxe edo Zerbitzurako F 127 Barne Kontroleko Zerbitzuko burua lanpostua aldi batez eta zerbitzu betekizunetan betetzeko deialdia ebatzi da.

GERTAKARIAK

Lehenengoa- Euskal Herriko Unibertsitateko Gerentearen 2016ko maiatzaren 9ko erabakiaren bidez deialdia argitaratu zen.

Bigarrena- Gerentearen erabakiaren bidez, 2016ko ekainaren 8koa, aipatutako deialdian onartutako lehiakideen behin betiko zerrenda argitaratu zen.

Hirugarrena- Gerentzia honek deialdi honetan onartutako izangaiek adierazi eta egiaztatu dituzten merezimenduak baloratzeari ekin dio.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa- Honako arau hauek dira aplikagarri:

- Azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legea (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatua).
- Euskal Herriko Unibertsitateko langileen lan-baldintzak arautzeko akordioa (1996ko urriaren 23ko erabakia, 1996ko azaroaren 12ko EHAAn argitaratua).
- Euskal Herriko Unibertsitateko administrazio eta zerbitzuetako funtzionarioentzako zerbitzu betekizunak esleitzeko prozedura haztatua ezartzeko AZP Funtzionarioen Plangintza Batzordeak 2014ko uztailaren 1ean hartutako akordioa. Akordioa hau Gobernu Kontseiluak 2014ko uztailaren 10eko erabakiaren bidez berretsi zuen. (2014ko abuztuko 27ko EHAAn).
- Deialdia egiteko UPV/EHUko gerentearen erabakia eta horrekin bat datorren gainerako araudi aplikagarri orokorra.

Bigarrena- Gerentzia honek eskumena du erabaki hau emateko; izan ere, gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu-arloak zehazteko eta eskumenen eskuordetzeko dena hartutako 2013ko urtarrilaren 30eko errektorearen erabakiaren bidez (2013ko otsailaren 13ko EHAAn), eskuordetu zaio horretarako eskumena.

Hirugarrena- Deialdiko lanpostua zerbitzu-betekizunen bidez hornitzeko prozedura Euskal Herriko Unibertsitateko administrazio eta zerbitzuetako pertsonala funtzionarioentzako zerbitzu betekizunak esleitzeko prozedura haztatua ezartzeko AZP Funtzionarioen Plangintza Batzordeak 2014ko uztailaren 1ean hartutako akordioa izango da. Akordioa hau Gobernu Kontseiluak 2014ko uztailaren 10eko erabakiaren bidez berretsi zuen. (2014ko abuztuko 27ko EHAAn).

Laugarrena- Aipatutako prozedurak ezartzen du hautatua izango dela merezimenduak baloratzeko zehaztutako baremazioaren arabera puntu gehien lortzen dituen izangaia eta, betiere, laugarren artikuluan adierazitako hurrenkerari jarraituko zaio hautaketa egiterakoan. Hautatutako pertsona adierazitako epean hasiko da zerbitzu betekizunen xede den lanpostuan edo eginkizunetan.

Horregatik guztiagatik, eman zaizkion eskumenak erabiliz, honako hau,

ERABAKI DU

Lehenengoa: Deialdi honetako lanpostua zerbitzu betekizunetan aldi baterako esleitzea, hautatutako funtzionarioari, erabaki honetako I. eranskinean jasota dauden baldintzetan.

Bigarrena.- Esleipena 2016ko uztailaren 1eko ondorio dataz egitea. Esleipen hori indarrean egongo da 2014ko uztailaren 1eko erabakiaren 9. artikuluan adierazitakoaren arabera.

Hirugarrena.- Erabaki hau eta dagozkion eranskinak argitaratzea UPV/EHUren webgunean (Administrazio eta zerbitzuetako langileak. Hautaketa eta hornikuntza. Barne-deialdiak).

Laugarrena.- Erabaki hau jakinaraztea interesdunari, Dagozkien Zerbitzuko Buruei edo Administrazioaileei, eta nominen atalari. Har beza kontuan AZPren atalak.

Bosgarrena.- Erabaki honek administrazio-bidea agortzen du eta honen kontra aukerako berraztertze errekurtsoa jar dakioko gerentzia honi, hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da administrazioarekiko auzietarako epaitegietan bi hilabeteko epean. Epe horiek erabakia lehen adierazitako moduan argitaratu eta hurrengo egunetik hasiko dira kontatzen.

Leioan, 2016ko ekainaren 17an

Errektorearen eskumenak eskuordetuta: 2013ko urtarrilaren 30eko erabakia
(2013ko otsailaren 13ko EHAA)

UPV/EHUko GERENTEA

Miren Lorea Bilbao Arteché



I. ERANSKINA

ZERBITZU BETEKIZUNA

2016/05/9

Esleipenduna: AitorBarrenetxeaLazaro
Lanpostuaren Izena: BarneKontrolakoZerbitzuko burua
Lanaldia: Arautua
Eref.: F 127
Zenbatgarrena: 1
Maila: 27
Taldea: A
REskala: Gestio Teknikaria
H.E.: 3;
Langunea: KOORDINAZIOAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZA
Campus: BIZKAIA
BE: Ekonomia eta Enpresa Zientzietan lizentziatua
Ondorio data: 2016ko uztailaren 1a



II. ERANSKINA

PUNTUAZIOEN ZERRENDA - ZERBITZU BETEKIZUNA - 2016ko maiatzaren 9ko DEIALDIA

1429	F 127	Barne Kontroleko Zerbitzuko burua	Hor. 1	HE 3	KOORDINAZIOAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZA																	
------	-------	-----------------------------------	--------	------	---	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

ADJ	DNI	DEITURAK, Izena	ORD.	PUNT. GUZT.	ANTZIN.		EMANDAKO SERBITZUAK GUZT.	F = Taldea		L = Taldea		F & L = Talde		EHUn ZERB.		F = Taldea		L = Taldea		F & L = Talde		BESTE ADM.		GRADUA		TITUL.	HIZK.	EUSKARA		ELKAR.	
					Urteak	Punt.		Hill.	Puntuak	Hill.	Puntuak	Hill.	Puntuak	Hill.	Puntuak	Hill.	Puntuak	Hill.	Puntuak	Hill.	Puntuak	Hill.	Puntuak	G	<	Punt.	Puntos	Puntos	PL	Ptos.	Puntos

a) Deitutako lanpostuaren talde eta eskala bereko karreradun funtzionarioak.

Adj.	11910228T	BARRENETXEA LAZARO, AITOR		43,2300	20	9	18,00	205	18,00			42	4,20	222	18,00			3	0,30			3	0,30	26	-1	3,5			3	10,1	2,63
	72568728W	GRANILLO LÓPEZ, JUANA Mª		40,1750	27	12,15	15,30	83	8,30					83	8,30	70	7,00			11	1,10	81	7,00	24	-3	0,5	0,25		3	10,1	1,88

d) Behin behineko funtzionarioak.

	16077444	PEREZ MENDIA, JONE		16,2500	5	2,25	3,40	14	1,40					14	1,40					20	2,00	20	2,00				0,25	0,25	3	10,1	
--	----------	--------------------	--	---------	---	------	------	----	------	--	--	--	--	----	------	--	--	--	--	----	------	----	------	--	--	--	------	------	---	------	--